



Donostiarrak ere Anbotopean

Idazle eta musikari donostiarrak "durgartu" egingo zaizkigu abenduaren 4tik 8ra bitartean. Hona hemen, datozen egunetan Durangon izango diren musikari eta idazle donostiarren produkzioa.

Eleberria

Felipe Juaristi idazlea izango da aurtengo Durangoko Azokako protagonistetako bat. 1998an "Galderen geografia" olerki liburuarekin Euskadi Saria jasotako idazle honek "Airezko emakumeak" (Erein) eleberria plazaratu du aurten. Hi-

Haur eta gazte literatura

Urtero bezala, hurrei eta gazte-txoei zuzendutako liburu sorta ederra aurkeztuko dute Durangon idazle donostiarrek. Atal honetan, bi emakume aipatu behar ditugu: **Enkarni Genua** eta **Ana Urkiza**. Genuak "Zatoz lehenbailehen" (Erein) lana kaleratu du eta Urkizak, "Ondarruko piratak" (Ibaizabal) gazteentzako liburua.



Anton Kaiku



Bestalde, hortxe ditugu ia-ia urterolanen bat aurkeztu ohi duten **Seve Calleja** ("Aitona ez dakizu ipuinak kontatzen", Desclee), **Iban Zaldúa** ("Ile luzeen kondaira", Pamela) eta **Harkaitz Cano** ("Itsoa etxe barruan", Elkar).

Ezin aipatu gabe utzi **Jose Ramon Anso**renak idatzitako "Pailazo en eskuliburua" (Elkar) eta **Txan mago donostiarren** bigarren liburua.



"Ziri magikoa lapurtu ziotenekoa" (Elkar). Atal hau bukatzeko, eleberri gintzan maisu diten bidadazlek haur eta gazteentzako lanak eramango dituzte azokara: **Koldo Izagirrek** eta **Felipe Juaristik**. Juaristik "Basa limoen usaina" (Elkar) plazaratu du eta Izagirrek, "Anton Kaiku euskaldunen herrian" (Erein).




Dozena bat idazlek eramango dituzte beren lanak azokara


ru zati ditu liburuak, eta guztietan emakumeak ditu hizpide: Bigarren Mundu Gerran ihesi dabilen emakume judutar bat eta Frantziako Iraultzaren garaiko lau emakume musikari, besteak beste.

Xabier Etxaniz Rojok ere ez du huts egingo aurtengo hitzordu handira. "Hamar manamenduak" ipuin bilduma kalera-tu zuen Rojok iaz, arrakasta handia lortuz. Aurtent, "Koadro isila" (Erein) estreinako eleberria besapean joango zaigu azokara. Lan honekin Erein argitaletxeak eta Euskadiko Kutxak antolatutako Donostia Opera Prima saria eskuratu du donostiarrak. Liburuko protagonista Santi da, ingurukoekin komunikatzeko arazoak dituen gizona.

Jasone Osoro ere lehen eleberriarekin hurbilduko da Durangora: "Greta" (Elkar). Elgoibarren jaio baina gurean bizi den idazle eta gidoilari honek bakardadeaz, askatasunaz eta konpromisoaz dihardu lehen eleberrian. Osoro ipuingintzan aritu da gehien bat; "Tentazioak" eta "Korapiloak" ipuin bildumak eta "Isadora Ducan" biografia dira lan ezagunenak.



Felipe Juaristi



Jose Mari Irigoien

Berrito argitaratutakoak

Beste bi egileren lan bana berrito argitaratuko dira eta Durango izango ditugu: Joan Mari Irigoienen "Oilarraren promesa" eta Koldo Izagirreraren "Vladimir". Joan Mari Irigoienek idatzitako lehen liburua berrito merkaturatuko du Elkarrek. Hego Ameriketatik bueltan idatzi zuen altxatarrak "Oilarraren promesa", 27 urte zituela. 60ko hamarkadan Altzak izandako itxura aldatetaz mintzo da bertan Irigoien. Jatorrizko lanari hainbat aldaketa egin dizkio idazleak.

Koldo Izagirrek 1966an kaleratutako "Vladimir" liburu arrakastatsua ere berrito argitaratuko du Txalapartak, eta Izagirrek berak egindako argazkiak gehitu dizkiote lanari. Vladimir Bigarren Mundu Gerran erresistentzian aritutako komandantea da, Sobiet Batasuneko itsaspeko bate-tik lehorreraturako iraultzailea.

Saiakerak

Saiakera egileak ere izango dira Durangoko Azokan: Joxerra Garzia eta Joxe Azurmendi. Joxerra Garziak "Itsasoan euri" liburua plazaratu du Alberdaniarekin. 2000tik 2003ra bitartean Euskadi Irratiko "Goizean behin-saioan" egindako hitzalditxoak bildu ditu liburuan Garziak. Egilearen hitzetan, "bakoitza bere zoroak bizi du, eta nirea argi asko agertzen da, behin eta berriz, testu hauetan. Herri izan nahi eta ezin duen herriko herritar izan nahi eta ezin duen baten zoroa bildu dut liburuan".

Bestalde, Joxe Azurmendik Etienne Salaberry Uztaritzeko apaiz idazlearen ekarpenak bildu ditu "Etienne Salaberry" izenburuko liburuan (Egan). Salaberry Piarres Laffitteren kidea izan zen Uztaritzeko ikastetxe katolikoan. eta harekin lan egin zuen "Herria" astekarian.

Musika, apalago

Patxada hartu dute Donostiako musikari askok, izan ere, aurtent lau diskok besterik ez dute egingo Donostia-Durango ibilbidea. Mikel Laboa abeslariak dagoeneko ezagunak diren bere kantua asko bildu ditu Elkarrekin argitaratutako "60ak + 2" diskoan. Donostian egindako jazz doinuek ere tartea izango dute azokan, Dinbi Danba taldeak izen bereko diskoa kaleratu baitu Gaztelupeko Hotsak disketxearekin.

Disketxe berearekin plazaratu du azken diskoa Adrian Perezek gidatutako Mal de Ojo taldeak: "Mestijaia". Runbak dira nagusi lan horretan. Surfin Kaos Intxaurrendoko taldeak, azkenik, autoekoitzitako diskoa eramango du Durangora.

mikel 60ak + 2 LABOA



Joxerra Garzia